

Herrialde txostena: AEBak

basque
trade &
investment

2020ko uztaila

- + Estatu Batuetako bulegoa
- + Adimen Lehiakorreko Unitatea



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT



EDUKIEN AURKIBIDEA

1. DATU OROKORRAK	4
2. BEGIRADA	5
3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA	6
4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA	7
4.1. Abagune ekonomikoa	7
4.2. Balantza komertziala	7
4.3. Atzerriko Inbertsio Zuzena (AIZ)	8
4.3.1. Estatu Batuek atzerrian eginiko AIZ	8
4.3.2. AIZ Estatu Batuetan	9
4.4. Enplegua	10
4.5. Perspektiba ekonomikoak	11
5. KANPO-MERKATARITZA	13
6. ALDEBIKO HARREMANAK	17
6.1. Euskadiren eta Estatu Batuen arteko merkataritza	17
6.2. Euskadiren posizionamendua	21
6.3. Aldebiko inbertsioak	23
7. SEKTORE NAGUSIAK	¡Error! Marcador no definido.
7.1. Ekarpena BPGari	¡Error! Marcador no definido.
7.2. Negozio-aukerak	¡Error! Marcador no definido.
8. NAZIOARTEKO HARREMANAK	¡Error! Marcador no definido.
8.1. Nazioarteko kidetasunak	¡Error! Marcador no definido.
8.2. Merkataritza-akordioak	¡Error! Marcador no definido.
9. ASKOTARIKO ARRISKUAK	¡Error! Marcador no definido.
10. ONDORIOAK	¡Error! Marcador no definido.
11. ERREFERENTZIAK	¡Error! Marcador no definido.



TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: Estatu Batuetako hazkunde adierazleak.....	7
2. taula: kanpo-merkataritzaren adierazleak.....	8
3. grafikoa: AIZ AEBetan (milioi USD).....	10
4. grafikoa: AEBetako AIZ atzerrian (milioi USD).....	10
5. taula: Lan merkatua Estatu Batuetan.....	11
6. taula: Estatu Batuek esportatutako produktuak.....	14
7. taula: Estatu Batuek inportatutako produktuak.....	15
8. taula: 2019an Estatu Batuek inportatutako produktu garrantzitsuenak.....	16
9. taula: Estatu Batuek 2019an Europako herrialde nagusietatik eginiko inportazioak, milioi dolar.....	16
10. taula: Estatu Batuen posizio komertziala Euskadirekiko 2019an.....	17
11. taula: Estatu Batuekiko kanpo-merkataritza, milioi euro.....	17
12. taula: Euskaditik Estatu Batuetara gehien esportatutako kapituluak 2019an (*behin-behineko datuak).....	18
13. taula: Euskadik Estatu Batuetatik gehien inportatutako kapituluak 2019an (*behin-behineko datuak).....	18
14. taula: Euskadiren eta Espainiaren pisua AEBetaranzko esportazioetan sektoreka (%).....	19
15. taula: Euskadiren eta Espainiaren pisua mundu mailako esportazioetan sektoreka (%).....	20
16. taula: Espainia eta Euskaditik Estatu Batuetara eginiko esportazioen rankinga produktuka (2015-2019 guztira).....	20
17. taula: AEBak: Kuota rankinga sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaeraren rankinga hazkundearen arabera, 2012-2017.....	21
18. taula: Merkatuko bolumenak milioi USDtan.....	25

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa: AEBek eginiko AIZ (bilioi USD).....	9
2. grafikoa: AIZ AEBetan (bilioi USD).....	10
3. grafikoa: Langabezia Estatu Batuetan (%) 2019ko urtarrila-apirila.....	11
4. grafikoa: BPGaren eta inflazioaren aurreikuspena.....	12
5. grafikoa: Estatu Batuetako esportazioen jomuga garrantzitsuenak (2019).....	13
6. grafikoa: Estatu Batuetako inportazioen jatorri garrantzitsuenak (2019).....	14
7. grafikoa: Euskadiren eta Estatu Batuen arteko merkataritza (€, 2000-2019).....	17
8. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiako esportazioetan (%).....	19



1. DATU OROKORRAK



GOBERNUA

Estatu burua: Donald J. Trump
Presidentea: Donald J. Trump
Gobernu mota: Errepublika Konstituzional Federala



BIZTANLERIA

Gutira: 332,6 milioi (2020rako aurreikuspena)
Hazkunde naturala: % 0,52
Hirietako biztanleria: % 82,7 (2019rako aurreikuspena)
Hizkuntza ofiziala: Konstituzioak ez du ezartzen nazio mailako hizkuntza ofizialik. Ingelesa da, jakina, gehien erabiltzen den hizkuntza, baina mundu osotik iritsitako migratzaile-portzentaje handia dagoenez, beste hizkuntza asko ere hitz egiten dira. Aipatzekoa da AEBetako hispanoen kopurua 52 milioikoa dela (munduko bigarren handiena, Mexikoren atzetik), eta, oro har, dokumentazio ofizialak eta ohartarazpen publikoak ingelesez eta gaztelaniaz idazten direla.
Negoioetarako hizkuntza: ingelesa.
Hiriburua: Washington, DC
Hiri garrantzitsuenak (biztanleria): Los Angeles (17.718.858); New York (16.713.992); Chicago (9.655.015); San Frantzisko (6.989.419); Houston (6.519.358); Miami (5.805.883); Washington DC (6.022.391); Atlanta (4.762.159); Dallas (4.547.218); Filadelfia (4.066.064); Phoenix (4.163.445); Detroit (3.801.161); Boston (3.684.250); Minneapolis (3.496.061); San Diego (3.215.637); Seattle (2.776.119).



EKONOMIA

BPGa (Barne Produktu Gordina), mila milioi USD: 21.439,45 (2019rako aurreikuspena)
Manufakturako BPGa (mila milioi dolar): 2.173,32
Per capita BPGa (dolar korranteak): 65.112 (2019rako aurreikuspena)
BPGaren hazkundera 2019an: % 2,3 (COVID-19aren ostean eginiko aurreikuspenak: 2020an % 5,9 eta 2021ean % 4,7)



BESTE BATZUK

GGI: 15/177 Iturria: UNDP 2019
I+G-ren (berrikuntza eta garapena) gastua
BPGarekiko: 2,8%
Internet erabiltzaileak: % 90



2. BEGIRADA

Estatu Batuak jomuga estrategikoa da Euskadiren interesentzat, besteak beste, bere merkatuaren tamaina handiagatik, bere garapen ekonomiko handiagatik, I+G-ko inbertsioagatik eta euskal enpresei hainbat merkatu garrantzitsutan - energia, bioteknologia, manufaktura aurreratua eta automozioa- eskaintzen dien aukerengatik.

Puntu honetan azterlan bat baliatuko dugu, zeinetan aztertzen diren 31 zonaldean banatutako 48 herrialdek Euskadi eta BasqueTrade-rentzat izan lezaketen interesa. Azterlan horretan, AEBak lehen postuan daude eta alde nabarmena ateratzen diote bigarren postuari. Eraitza hori lortu da merkatuaren tamaina handiagatik eta euskal enpresen interesagatik, horren erakusgarri direlarik Global Lehian programako ekintza kopurua, BASQUE TRADEren proiektuak, ezarpenak, esportazioak eta klusterrek agertu duten interesa. Halaber, garrantzitsua da atzerriko inbertsioen jatorri posible gisa. Gainera, ez dugu sarpen komertzial handirik AEBetan, horregatik komeni da Basque Trade-k laguntza ematea merkatu horretan sartzeko. Bestalde, puntuaketa nahiko baxua atera du merkatuaren dinamismoan eta sarpen komertzialaren arloan.

AEBetako merkatuarekiko interesaren erakusgarri, azken urteotan hainbat ekintza instituzional egin dira, besteak beste, Lehendakaria bisitan joan da Nazio Batuek New Yorken duten egoitzara, eta Ekonomi Garapen eta Azpiegitura sailburuak hainbat bidaiak egin ditu San Frantzisko, Washington DC eta Boston hirietara. Horrez gain, enpresa-misioak ere egin dira euskal klusterrekin lankidetzan. 2021ean gutxienez bi misio sektorial egingo dira, bata offshore energia eolikoaren sektorekoa eta bestea bioteknologia arlokoa, zeintzuk bertan behera gelditu baitira 2020an koronabirusaren krisiagatik.

COVID-19a iritsi aurretik, ekonomia estatubatuarra herrialdearen historiako hedapen-ziklo luzeenean zegoen murgilduta: kontsumo nazionalaren eskaera handia zen, langabezia-tasa % 3,5ean zegoen kokatua (azken 50 urteetan erregistratutako baxuena), soldadak igo egin ziren eta perspektiba ekonomikoak ezin hobekak ziren. Gainera, hazkunde-perspektiba horiek are handiagoak ziren Kanadarekin eta Mexikorekin hitzarmen komertziala sinatu eta Txinarekin izandako merkataritza-negoiazioen ondoren. Koronabirusak, ordea, errotik aldatu du Estatu Batuen panorama ekonomikoa, herrialdea atzeraldian sartzeraino. Aurreikuspenen arabera, BPGa % -5,9 murriztuko da 2020an, baina 2021ean % 4,8 haziko da (Europar Batasunarentzat aurreikusitakoak baino zifra baikorragoak). Halere, badago faktore oso kezkarri bat, langabezia-tasa, azken 12 asteetan 44 milioi estatubatuarrek eskatu baiture langabeziagatik laguntza.



3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

Errepublika federala da, 50 estatu erdi-subiranoz osatua, eta botere bereizketaren printzipioan oinarritzen da. Presidentea da Estatu burua, Indar Armatuena komandante burua eta gobernu burua. Berak aukeratzen ditu bere Kabineteko kideak, zeintzuk Senatuak berretsi behar baititu. Presidentea lau urterik behin aukeratzen da zeharkako hauteskunde-sistema baten bidez. Prozesu horrek hainbat fase dauzka. Primarietan, alderdi politiko bakoitzak hainbat hautagai aurkezten ditu taldeko presidentetzarako, normalean, hauteskundeak baino urtebete lehenago. Primaria horietan aukeratzen da Etxe Zurirako lehian parte hartuko duen alderdi bakoitzeko hautagaia. Estatu bakoitzeko ordezkarien elkargoak aukeratzen ditu hautagai horiek.

Parlamentuan daude, alde batetik, Senatua, presidentetzarako izendapenak onartzen eta baztertzen eta itunak berresten dituen eta, bestetik, Ordezkarien Ganbera, lege proiektuak abiarazten dituen; Senatuak posible du lege proiektu horiek atzera botatzea edo aldatzea. Senatuak 100 kide ditu, eta Ordezkarien Ganberak 425. Ordezkarien Ganberarako hauteskundeak bi urterik behin egiten dira (urte bikoitietan), eta Senaturakoak, berriz, sei urterik behin. Presidentek eskubidea du Kongresuak onartutako legeriari betoa jartzeko, eta Kongresuak beto hori indargabetu dezake botoen bi herenak lortuz gero.

Estatu Batuetako sistema politikoa bi alderdikoa da. Batetik, Alderdi Demokrata dago, progresista da eta gobernuaren esku-hartzea defendatzen du merkaturako ekonomia erregulatzeko; bestetik, Alderdi Errepublikarra dago, kontserbadorea da eta kapitalismo liberala eta defentsa nazionala defendatzen ditu. Badaude beste alderdi batzuk askoz garrantzi gutxiago dutenak, esaterako, Alderdi Erreformatzailea, Alderdi Liberala edo Alderdi Ekologista.

2016ko azaroaren 8ko hauteskundeen ondoren eta 2017ko urtarrilaren 20tik Donald J. Trump da gobernuko presidentea, eta Michael Pence presidenteordea, biak Alderdi Errepublikarrekoak. Presidentetzarako eta kongresurako hurrengo hauteskundeak 2020ko azaroaren 3an egingo dira. Donald Trump, egungo presidentea, hautagai izango da berriro eta Joe Biden hautagai demokrataren aurka lehiatuko da.

Trump-en mezuaren ardatza izan da lehentasuna ematea Estatu Batuen interesei (*America First*), immigrazioa kontrolatzea eta nazioarteko akordio komertzial nahiz aliantza tradizional guztiak zalantzan jartzea. Bere hauteskunde-kanpainan, Donald J. Trump-ek agindu zuen politika ekonomikoa berrorientatuko zuela lau ardatzetan oinarrituta: ekoizpen eta enplegu nazionala babestera bideratutako politika komertziala, ekonomiaren desregularizazioa, zerga-erreforma anbiziotsua eta azpiegitura arloko inbertsio handiagoa. Hillary Clinton hautagai demokratik ez zuen lortu Obamaren hautesleak atxikitzea, ez gutxiengo hispano eta afroamerikarren artean, eta ezta ere hezkuntza edo errenta maila baxueneko zuriaren artean; hala, galdu egin zituen hauteskundeak, boto gehien jaso arren.

2018ko hauteskundeen ondoren (mid term), demokratek Ordezkarien Ganberaren kontrola bereganatu zuten; horrek buru eman zion alderdi bakar batek hiriburuko instituzioen gain zuen hegemonia eta nagusitasunari, eta aldi berean oztopatu egin ditu egungo administrazioaren erreforma-planak.



4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

4.1. Abagune ekonomikoa

Estatu Batuetakoa da **munduko lehen ekonomia**, eta atzetik du Txinakoa. Duela aste gutxi batzuk arte, ekonomia estatubatuarra herrialdearen historiako **hedapen-ziklo** luzeenean zegoen murgilduta: kontsumo nazionalaren eskaera handia zen, langabezia-tasa % 3,5ean zegoen kokatua (azken 50 urteetan erregistratutako baxuena), eta perspektiba ekonomikoak ezin hobekak ziren. Gainera, hazkunde-perspektiba horiek are handiagoak ziren Kanadarekin eta Mexikorekin hitzarmen komertziala sinatu eta Txinarekin izandako merkataritza-negoiazioen ondoren.

Koronabirusaren agerpenak goitik behera aldatu du munduko egoera ekonomikoa, eta aurreikusi ezinako ondorio ekonomiko eta politikoak izango dituen **krisi globala** eragin du. Hornikuntza-kateen hausturak eta pandemiaren hedapenak merkaturaren hegakortasuna eragin zuten, eta, ondorioz, 1987tik izandako jaitziera handiena izan zuen S&P 500 indizeak. Trump presidenteak larrialdi nazionala deklaratu zuen martxoaren 13an¹, eta kutsatzeak herrialde osoan zabaltzen zihoazen neurrian, estatuetako gobernadoreek murrizketak ezarri zituzten pertsonen mugimenduan. Horrek beherakada handia eragin zuen kontsumo-eskarian. Hasieran, turismo-sektorean eta ostalaritzan nabaritu zen inpaktu ekonomikoa, baina beste sektoreetara ere zabandu da.

Estatu Batuak **atzeraldian** sartu dira 2020an, COVID-19aren krisia dela medio. Nazioarteko Diru Funtzak apirilean argitaratu zituen Estatu Batuen hazkundeari buruzko aurreikuspenak, adieraziz 2020an % 5,9ko beherakada izango zuela eta 2021ean % 4,8 haziko zela². Analista gehienek arabera, urteko lehenengo bi hiruilekoetan kontzentratutako dira krisi ekonomikoa eta jaitziera horiek. Beherakada horren ostean, espero da hirugarren hiruilekoa trantsiziokoa izango dela, hazkunde positiboarekin, eta azelerazio handiena laugarrenean iritsiko dela, batez ere, 2021ean.

1. taula: Estatu Batuetako hazkunde adierazleak.

Hazkunde adierazleak	2017	2018	2019	2020 (e)	2021 (e)
BPGa (mila milioi USD)	19.519,4	20.580,25	21.427,67	20.289,98	21.665,90
BPGa (urteko hazkundearen %, prezio konstantea)	2,37	2,93	2,33	-5,91	4,74
Per capita BPGa (USD)	60.000	62.869	65.112	67.427	69.644
Inflazio-tasa (%)	2,1	2,4	1,8	0,6	2,2
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)	4,3	3,9	3,7	10,4	9,1

Iturria: NDF, 2020. Agentziak egina.

4.2. Balantza komertziala

Estatu Batuak dira ondasunen munduko inportatzaile handiena eta bigarren esportatzaile handiena; halaber, zerbitzu komertzialen inportatzaile eta esportatzaile handiena dira. Aldiz, merkataritza BPGaren % 26,6 baino ez da (Munduko Bankua).

¹ The White House Proclamation declaring a national emergency. March 13, 2020

<https://www.whitehouse.gov/presidential-actions/proclamation-declaring-national-emergency-concerning-novel-coronavirus-disease-covid-19-outbreak/>

² GDP Growth Annual Percent Change, International Monetary Fund. April 16

https://www.imf.org/external/datamapper/NGDP_RPCH@WEO/OEMDC/ADVEC/WEOWORLD



Bere bazkide komertzial garrantzitsuenak dira Kanada, Mexiko, Txina, Japonia eta Erresuma Batua. Baina Europar Batasun osoa kontuan hartuz gero, berau litzateke AEBen lehen bazkidea. Trump-en administrazioa iristearekin batera, bere bazkide komertzialekiko harremanek okerrera egin dute, muga-zergak ezarri dizkielako altzairu eta aluminio inportazioei, lehendik indarrean zeuden akordio komertzialak birnegoziatu dituelako eta gatzak handiak izan dituelako Merkataritzaren Munduko Erakundearekin (Boeing Airbus enpresaren inguruko eztabaida kasu).

Estatu Batuen balantza komertziala negatiboa da estrukturaliki, eta defizitak okerrera egin du azken urteotan. Defizit komertziala 887.300 milioi dolar estatubatuarrekoa izan zen 2018an (627.700 milioi USD zerbitzuak kontuan hartuta). Esportazioen hazkundera (% 4) inportazioena (% 3) baino handiagoa izan zen. 2019an, zertxobait hobetu zen defizit komertziala, batez ere Txinarekiko (% -15). U.S. Census Bureau bulegoaren arabera, AEBek 2.498.413 milioi dolar estatubatuarreko ondasunak inportatu zituzten 2019an, eta esportazioak, berriz, 1.652.806 milioi USDeraino iritsi ziren. Zerbitzuei dagokienez, 595.409 milioiko inportazioak egin ziren, eta esportazioak 845.228 milioi USDekoak izan ziren.

2. taula: kanpo-merkataritzaren adierazleak.

Kanpo-merkataritzaren adierazleak	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Ondasunen inportazioa (milioi USD)	2.385.480	2.273.249	2.207.195	2.358.789	2.561.667	2.498.413
Ondasunen esportazioa (milioi USD)	1.635.563	1.511.381	1.457.393	1.553.589	1.674.330	1.652.806
Zerbitzuen inportazioa (milioi USD)	480.761	491.966	511.627	543.880	567.322	595.409
Zerbitzuen esportazioa (milioi USD)	741.094	755.310	758.446	798.957	826.980	845.228
Inportazioak (milioi USD)	2.866.241	2.765.216	2.718.821	2.902.669	3.128.989	3.114.459
Esportazioak (milioi USD)	2.376.657	2.266.691	2.215.839	2.352.546	2.501.310	2.498.034
Balantza komertziala (milioi USD)	-749.917	-761.868	-749.801	-805.200	-887.338	-866.244
Balantza komertziala (zerbitzuak barne) (milioi USD)	-489.584	-498.525	-502.982	-550.123	-627.679	616.425
Kanpo-merkataritza (BPGaren %)	30,0	27,7	26,5	27,1	27,5	-
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (urteko hazkundera %-tan)	5,0	5,3	2,0	4,7	4,4	-
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (urteko hazkundera %-tan)	4,2	0,5	-0,0	3,5	3,0	-

Iturria: U.S. Census Bureau, Economic Indicator Division. Agentziak egina.

4.3. Atzerriko Inbertsio Zuzena (AIZ)

AEBen atzerriko inbertsio zuzena 62,3 mila milioi USD jaitsi zen 2018an, 5,95 bilioi USDeraino, 2017an 6,01 bilioikoa izan ondoren. Beherakada horren arrazoia da Estatu Batuetako multinazionalen filialek aberriratu egin zituztela atzerriko herrialdeetan metatutako irabaziak, neurri handi batean 2017ko Tax Cuts and Jobs legeari erantzunez (<https://www.congress.gov/115/plaws/publ97/PLAW-115publ97.pdf>), eta horren ondorioz 75,8 milioi USD gutxiago inbertitu ziren Latinoamerikan. Sektoreka, Estatu Batuetako fabrikatzaileen filialetan gertatu zen murrizketa handiena.

AEBetan eginiko AIZ 319,1 mila milioi USD hazi zen, harik eta 2018aren amaieran 4,34 bilioi USDeraino iritsi zen arte (2017aren amaierako datua 4,03 bilioi USDekoa da). Hala, Europako inbertsioa -batez ere Herbehereek eta Irlandak eginikoa- 226,1 milioi USD handiagoa izan zen. Sektoreka, manufakturako filialek, txikizkako merkataritzak eta ondasun higiezinak izan zituzten gorakada handienak.

4.3.1. Estatu Batuek atzerrian eginiko AIZ

Estatu Batuetako enpresa multinazionalak ia herrialde guztietan inbertitzen dute, baina 2018aren amaieran badaude bost herrialde inbertsio osoaren erdia baino gehiago kontzentratzen dutenak. AEBek Herbehereetan inbertitu zuten gehien,




883,2 mila milioi USD guztira, eta ondoren Erresuma Batuan (757,8 mila milioi USD), Luxenburgon (713,8 mila milioi USD), Irlandan (442,2 mila milioi USD) eta Kanadan (401,9 mila milioi USD).

Sektoreka, inbertsioaren zati handiena karterako sozietateetara bideratu zen (2018ko inbertsio osoaren ia erdia). Sozietate horiek enpresa matrize estatubatuarren jabetzakoak dira, industria desberdin askotakoak, eta atzerriko beste filial batzuk dituzte, industria askotan jarduten dutenak. Matrize estatubatuarri dagokionez, manufaktura arloko enpresek % 54ko portzentajea ordezkatzen dute, eta finantza eta aseguru sektorekoek % 12,1ekoa.

Estatu Batuetako enpresa multinazionalak 531 mila milioi USDeko diru-sarrerak izan zituzten 2018an atzerrian metatutako inbertsioengatik (2017an baino % 12,8 gehiago).

1. grafikoa: AEBek eginiko AIZ (bilioi USD)



Iturria: Bureau of Economic Analysis.

4.3.2. AIZ Estatu Batuetan

AEBak atzerriko inbertsio zuzenaren munduko hartzaile handienak dira. AEBetako AIZ 4,34 bilioi USDekoa da, eta 7.357.700 lanpostu sortzen ditu atzerriko jabetzako enpresen filial estatubatuarretan. Hauek dira AEBetan AIZ gehien jasotzen duten industria garrantzitsuenak: **fabrikazio aurreratua, sektore aeroespaziala, nekazaritza arloko negozioak, automozioa, energia, goi-mailako teknologia, informazio eta komunikazio teknologiak (IKT), biozientziak, logistika eta hornikuntza-katea, fabrikazioa eta zerbitzu profesionalak.**

2018an bost herrialdetatik iritsi zen guztizko inbertsioaren erdia baino gehiago. Erresuma Batua izan zen AEBetan gehien inbertitu zuen herrialdea, 560,9 mila milioi USD guztira. Kanada 2017an baino postu bat gorago kokatu zen (511,2 mila milioi USD) eta bigarren inbertitzaile handiena bihurtu zen. Japoniari kendu zion postu hori, zeina hirugarren gelditu baitzen (484,4 mila milioi USD); Herbehereak (479 mila milioi USD) eta Luxenburgon (356 mila milioi USD) ere postuz aldatu ziren, 2018ko laugarren eta bosgarren inbertitzaile handienak bihurtuz.


Aztertzen badugu amaierako onuradunaren herrialdea (UBO), ikusiko dugu hauek izan zirela bost herrialde garrantzitsuenak: Erresuma Batua (597,2 mila milioi USD), Kanada (588,4 mila milioi USD), Japonia (488,7 mila milioi USD), Alemania (474,5 mila milioi USD) eta Irlanda (385,3 mila milioi USD). Herbehereen eta Luxenburgoren inbertsioa atzerriko matrizearen herrialdekora baino askoz txikiagoa izan zen eta horrek adierazten du atzerriko matrizeek herrialde horietan eginiko inbertsioaren zati handi bat beste herrialde batzuetako inbertitzaileek eginikoa izan zela.



Estatu Batuetan eginiko atzerriko inbertsio zuzena manufaktura sektorean kontzentratu zen nagusiki, guztizkoaren % 40,8arekin, eta finantza eta aseguruaren sektorea kokatu zen atzetik (% 12,1).

Atzerriko enpresa multinazionalak 208,1 mila milioi USDeko diru-sarrerak izan zituzten 2018an Estatu Batuetan metatutako inbertsioengatik (2017an baino % 19,7 gehiago).

2. grafikoa: AIZ AEBetan (bilioi USD)



Iturria: Bureau of Economic Analysis.

3. grafikoa: AIZ AEBetan (milioi USD)

	2014	2015	2016	2017	2018
Stock	2.945.795	3.354.907	3.765.114	4.025.492	4.344.610
Flow	201.733	467.625	471.792	277.258	253.561

Iturria: Bureau of Economic Analysis.

4. grafikoa: AEBetako AIZ atzerrian (milioi USD)

	2014	2015	2016	2017	2018
Stock-a	5.108.835	5.289.071	5.586.030	6.013.335	5.950.991
Fluxua	333.014	264.359	289.261	300.378	-90.623

Iturria: Bureau of Economic Analysis.

4.4. Enplegua


Estatu Batuetako langabezia-tasa % 13,3ra iritsi zen maiatzean; datu hori apirilko % 14,7a baino hobea da³, baina oso urrun dago otsaileko (krisiaren aurreko) % 3,5etik, hots, azken 50 urteetako tasa baxuenetik. Azken bi hilabeteetan 44

³ <https://www.bls.gov/news.release/pdf/empsit.pdf> 2020ko maiatza



milioi estatubatuarrek galdu dute euren lanpostua, eta baliteke hamarkada oso batean ez itzultzea 2020ko otsaileko zenbakietara.

3. grafikoa: Langabezia Estatu Batuetan (%) 2019ko urtarrila-apirila



Iturria: U.S. Bureau of Labor Statistics. Agentziak egina.

5. taula: Lan merkatua Estatu Batuetan

Adierazlea	2019
Enplegua guztira (milioi)	155.764
ENPLEGUA SEKTOREKA	
-Lehen sektorea (%)	% 1
-Bigarren sektorea (%)	% 19
-Hirugarren sektorea (%)	% 79
Langabezia-tasa (%) (2018):	% 3,9

Iturria: The World Bank. Agentziak egina.

4.5. Perspektiba ekonomikoak

Gorago aipatu bezala, Nazioarteko Diru Funtsak 2020ko apirilean argitaratu zituen Estatu Batuen hazkundeari buruzko aurreikuspenak, adieraziz 2020an % 5,9ko beherakada izango zuela, eta 2021ean % 4,8 haziko zela⁴. Analista gehienek arabera, urteko lehenengo bi hiruherenekoetan kontzentratuko dira krisi ekonomikoa eta jaitziera horiek. Beherakada horren ostean, espero da hirugarren hiruhereneko trantsizioa izango dela, hazkunde positiboarekin, eta azelerazio handiena laugarrenean iritsiko dela, batez ere, 2021ean.

Nabarmenezkoa da burtsaren susperraldi positiboaren (2019koaren antzeko mailan mantentzen baita) eta langabezia-tasa handiaren arteko kontrastea. Izan ere, burtsak bilakaera positibo badu izan da merkatuek uste dutelako Estatu Batuetako ekonomia azkar suspertuko dela. Estatu Batuetako ekonomia indartsu zegoen COVID-19a iritsi aurretik, eta krisia gorabehera, oraindik ere sendo agertzen da nazioartean, krisi hau faktore iragankor baten ondorioz sortu delako,

⁴ GDP Growth Annual Percent Change, International Monetary Fund. April 16
https://www.imf.org/external/datamapper/NGDP_RPCH@WEO/OEMDC/ADVEC/WEOWORLD




eta ez arrazoi ekonomikoengatik. Horregatik, aurreikuspenek diote ekoizpenaren jaitsiera txikia izango dela eta inbertsio handiak egingo direla teknologian eta informazioan.

Maiatzean agertu ziren lehen hobekuntza-zantzuak, lantegiak irekitzean ekoizpena handitu zelako eta konfiantza indizeek ere gora egin zutelako.

Estatu Batuetako KPIaren urteko bariazio-tasa % 0,1ekoa izan da maiatzean, aurreko hilabetekoa baino bi hamarren txikiagoa. KPIak ez du jasan hileko aldaketarik, beraz, 2020ko inflazio metatua % -0,2koa izan da. Aipatzekoa da Aisialdi eta Kultura arloko prezioak % 0,7 igo direla, urte arteko % 2,1eko tasara iritsiz; aldiz, Jantzi eta oinetakoen prezioak % -3,2 jaitsi dira, urte arteko % -7,9ko bariazioarekin.⁵

Hona hemen bi aldagai horientzat aurreikusitako bilakaeraren grafikoa.

4. grafikoa: BPGaren eta inflazioaren aurreikuspena



Iturria: IMF. Agentziak egina.


⁵ Hedapena. Makro datuak. AEBetako KPIa. April 27, 2020
<https://datosmacro.expansion.com/ipc-paises/usa>



5. KANPO-MERKATARITZA

Kanada eta Mexiko dira Estatu Batuetako **esportazioen jomuga** garrantzitsuenak, % 17,77ko eta % 15,58ko portzentajeak dituztelarik. Atzetik doazkie Txina (% 6,48), Japonia (% 4,54), eta Erresuma Batua (% 4,20).

5. grafikoa: Estatu Batuetako esportazioen jomuga garrantzitsuenak (2019)




Iturria: International Trade Administration U.S. Department of Commerce. Agentziak egina.

Inportazioei dagokienez, lehen 4 herrialdeak esportazioen zerrendako berberak dira, baina hurrenkera desberdinean. Lehen postua Txinarena da, % 18,10arekin eta Mexiko kokatzen da bigarren % 14,33arekin. Ondoren doazkie Kanada (% 12,8) eta Japonia (% 5,75). Inportazioen zerrendan, Erresuma Batua ordez, Alemania dago bosgarren postuan (% 5,10).



6. grafikoa: Estatu Batuetako inportazioen jatorri garrantzitsuenak (2019)



Iturria: International Trade Administration U.S. Department of Commerce. Agentziak egina

Hauk dira 2019an Estatu Batuek esportatu zituzten produktu garrantzitsuenak:

6. taula: Estatu Batuek esportatutako produktuak.

Kodea	Produktuak	Milioi USD	%
GUZTIRA	All products	1.645.174.335	% 100,00
84	Makina, gailu eta artefaktu mekanikoak, erreaktore nuklearrak, galdarak eta makina horien zatiak...	205.879.700	% 12,51
27	Erregai mineralak, olio mineralak eta haietatik destilatutako produktuak, material bituminosoak...	199.735.686	% 12,14
85	Makina, aparatu eta material elektrikoak eta horien zatiak; grabaketa- edo erreproduzio-gailuak...	173.185.141	% 10,53
88	Hegazkinak, ibilgailu espazialak eta horien zatiak	136.043.357	% 8,27
87	Automobilak, traktoreak, belozipedoak eta lurreko beste ibilgailu batzuk, euren zatiak eta osagarriak	133.040.764	% 8,09
90	Optika, argazkigintza edo zinematografia, neurketa, kontrol edo zehaztasunezko tresna eta gailuak...	90.782.755	% 5,52
39	Plastikoa eta bere manufakturak	64.904.031	% 3,95
71	Perla finak (naturalak edo hazkuntzaoak), harribitxiak edo harri erdibitxiak, metal preziatuak...	59.609.828	% 3,62
30	Produktu farmazeutikoak	53.561.670	% 3,26
99	Beste ezein arlotan zehaztu gabeko materialak	48.439.559	% 2,94
29	Produktu kimiko organikoak	39.327.263	% 2,39
38	Industria kimikoetako askotariko produktuak	31.065.801	% 1,89
12	Olio-haziak eta -fruituak; askotariko haziak eta fruituak; landare industrialak edo sendabelarrak...	23.892.195	% 1,45
73	Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko manufakturak	18.687.072	% 1,14
02	Okela eta errai jangarriak	17.661.593	% 1,07
10	Zerealak	16.881.209	% 1,03



Kodea	Produktuak	Milioi USD	%
08	Frutak eta fruitu jangarriak; produktu mikatzen (zitrikoak) azalak, meloiak eta sandiak	15.089.573	% 0,92
48	Papera eta kartoia; zelulosa pasta, paper edo kartoizko manufakturak	15.066.619	% 0,92
72	Galdaketa, burdina eta altzairua	14.378.702	% 0,87
33	Olio esentzialak eta erretxinak; lurringintzako, apain-mahaiko edo kosmetikako prestatuak	13.857.683	% 0,84
40	Kautxua eta bere manufakturak	13.206.985	% 0,80

Hauk dira 2019an Estatu Batuek inportatu zituzten produktu garrantzitsuenak:

7. taula: Estatu Batuek inportatutako produktuak.

Kodea	Produktuak	Milioi USD	%
GUZTIRA	All products	2.568.396.449	% 100,00
84	Makina, gailu eta artefaktu mekanikoak, errektore nuklearrak, galdarak; makina horien zatiak...	379.040.916	% 14,76
85	Makina, aparatu eta material elektrikoak eta horien zatiak; grabaketa- edo erreproduzio-gailuak	352.305.359	% 13,72
87	Automobilak, traktoreak, belozipedoak eta lurreko beste ibilgailu batzuk, euren zatiak eta osagarriak	310.085.731	% 12,07
27	Erregai mineralak, olio mineralak eta haietatik destilatutako produktuak, material bituminosoak	210.111.736	% 8,18
30	Produktu farmazeutikoak	128.237.981	% 4,99
99	Beste ezein arlotan zehaztu gabeko materialak	113.246.611	% 4,41
90	Optika, argazkigintza edo zinematografia, neurketa, kontrol edo zehaztasunezko tresna eta gailuak;	96.852.214	% 3,77
94	Altzariak; altzari mediko-kirurgikoak, oheko artikuluak eta antzekoak; argiztapen gailuak. . .	67.172.665	% 2,62
39	Plastikoa eta bere manufakturak	60.576.462	% 2,36
71	Perla finak (naturalak edo hazkuntzakoak), harribitxiak edo harri erdibitxiak, metal preziatuak	58.072.472	% 2,26
29	Produktu kimiko organikoak	54.546.172	% 2,12
61	Puntuzko arropak eta janzteko osagarriak	48.241.179	% 1,88
73	Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko manufakturak	41.126.391	% 1,60
62	Arropak eta janzteko osagarriak (puntuzkoak izan ezik)	39.281.623	% 1,53
88	Hegazkinak, ibilgailu espazialak eta horien zatiak	34.949.980	% 1,36
95	Aisialdirako edo kirola egiteko jostailuak, jolasak eta artikuluak, eta horien zati eta osagarriak	34.116.749	% 1,33
40	Kautxua eta bere manufakturak	30.083.549	% 1,17
64	Oinetakoak, polainak eta antzeko artikuluak, eta artikulu horien zatiak	28.192.906	% 1,10
22	Edariak, likido alkoholdunak eta ospina	27.555.438	% 1,07
72	Galdaketa, burdina eta altzairua	24.617.010	% 0,96
76	Aluminioa eta bere manufakturak	22.290.706	% 0,87
08	Frutak eta fruitu jangarriak; produktu mikatzen (zitrikoak) azalak, meloiak eta sandiak	19.547.138	% 0,76
44	Zura, landare-ikatz eta zurezko manufakturak	19.304.575	% 0,75
03	Arrainak eta krustazeoak, moluskuak eta uretako gainerako ornogabeak	18.501.028	% 0,72



Iturria: Trademap. Agentziak egina.

Hona hemen Estatu Batuek 2019an inportatutako produktu garrantzitsuenak BEC (Broad Economic Categories) sailkapeneko multzoetan banatuta.

8. taula: 2019an Estatu Batuek inportatutako produktu garrantzitsuenak

Kodea	Produktu multzoa	Milioi USD
4	Kapital-ondasunak (garraioko ekipoak izan ezik) eta horien zati eta osagarriak	682.063
2	Hornidura industrialak	573.237
22	Beste partida batean zehaztu gabeko hornidura industrial elaboratuak	550.546
41	Kapital-ondasunak (garraioko ekipoak izan ezik)	489.571
5	Garraioko ekipoak eta horien zati eta osagarriak	437.569
6	Kontsumo-ondasunak	428.164
3	Erregaiak eta lubrifikagarriak	239.031
53	Garraioko ekipoen piezak eta osagarriak	194.771
42	Kapital-ondasunen zati eta osagarriak (garraioko ekipoak izan ezik)	192.492
62	Beste partida batean zehaztu gabeko kontsumorako artikulua erdi-iraunkorrek	187.975
51	Bidaiarientzako motordun ibilgailuak	177.533
7	Beste partida batean zehaztu gabeko ondasunak	173.900
31	Oinarrizko erregaiak eta lubrifikagarriak	171.202
1	Janaria eta edariak	147.636
63	Beste partida batean zehaztu gabeko kontsumorako artikulua iragankorrek	132.771
61	Kontsumorako artikulua iraunkorrek	107.416
12	Elikagai eta edari elaboratuak	102.145
32	Erregai eta lubrifikagarri elaboratuak	67.829
52	Garraioko ekipoak eta horien zati eta osagarriak, beste batzuk	65.263
11	Oinarrizko elikagai eta edariak	45.491
21	Beste partida batean zehaztu gabeko oinarrizko hornidura industrialak	22.691

Iturria: Comtrade, BEC Classification by Broad Economic Categories. Agentziak egina.

Euskadik Estatu Batuetan duen sarpin komertziala aztertzeko, hona hemen Europako 5 bazkide garrantzitsuenen eginiko erosketak sektoreka. Lehenik eta behin, ikusten da inportazioetan garraioko elementuak direla nagusi, eta ondoren kapital-ondasunak eta erdi-manufakturak.

9. taula: Estatu Batuek 2019an Europako herrialde nagusietatik eginiko inportazioak, milioi dolar

	Kodea	GUZTIRA	Espainia	Italia	Frantzia	Alemania	Erresuma Batua
Garraioko elementuak	5	80.048,88	2.293,28	8.172,94	17.805,26	33.550,70	18.226,71
Kapital-ondasunak	4	77.995,36	2.993,03	13.249,48	8.256,76	40.822,47	12.673,62
Erdi-manufakturak	2	66.847,61	4.956,99	10.451,41	8.181,13	32.375,32	10.882,77
Kontsumo-ondasunak	6	53.324,91	2.667,42	17.938,34	11.888,04	13.045,10	7.786,01
Beste ondasun batzuk	7	29.817,51	2.354,36	3.349,47	6.063,04	8.015,92	10.034,72
Elikadura eta edariak	1	19.110,63	2.307,33	5.566,89	6.281,82	1.979,66	2.974,93
Energia	3	8.064,04	1.476,66	1.285,55	916,39	395,74	3.989,70

Iturria: Comtrade, BEC Classification by Broad Economic Categories. Agentziak egina.



6. ALDEBIKO HARREMANAK

6.1. Euskadiren eta Estatu Batuen arteko merkataritza

2019an Estatu Batuak Euskadiren laugarren bazkide komertziala izan ziren, 2.730.392 milioi €-ko bolumenarekin (behin-behineko datuak). Azken 6 urteetan hirugarren postuan egon dira.

10. taula: Estatu Batuen posizio komertziala Euskadirekiko 2019an

		IMPORT	EXPORT	GUZTIRA
1	Alemania	3.012.561,77	3.839.993,50	6.852.554,26
2	Frantzia	1.769.812,09	3.916.828,85	5.686.641,93
3	Erresuma Batua	633.733,77	2.324.515,12	2.958.248,89
4	Estatu Batuak	941.150,27	1.789.241,47	2.730.392,75

Iturria: EUSTAT. Agentziak egina.

11. taula: Estatu Batuekiko kanpo-merkataritza, milioi euro

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2018-17 %	2019-18 %
Esportazioak	1.706.623	1.717.221	1.536.818	1.819.127	2.118.686	1.789.262	% 16,47	% -15,55
Inportazioak	378.423	390.164	372.265	444.739	507.167	941.150	% 14,04	% 85,57
Balantza komertziala	1.328.200	1.327.057	1.164.553	1.374.388	1.611.519	848.094	-	-

Iturria: EUSTAT. Agentziak egina.

Euskadik Estatu Batuetara eginiko esportazioak eta inportazioak hazi egin dira azkenaldian, nahiz eta beherakada nabarmenen bat edo beste izan den, adibidez, 2008ko krisiaren ondorioz. 2009tik aurrera goranzko bideari eutsi diote (jaitziera txikiren batekin) eta 2016tik aurrera nahiko gorakada handiak izan dituzte. Inportazioen kasuan, 2019an 2018an baino dezente gehiago hazi ziren.

7. grafikoa: Euskadiren eta Estatu Batuen arteko merkataritza (€, 2000-2019)



Iturria: EUSTAT. Agentziak egina.



Hauek dira Euskaditik AEBetara **gehien esportatzen diren 5 produktuak**: erregai mineralak (% 27,96), erreaktore nuklearrak (% 21,20), makina eta aparatu elektrikoak (% 9,40), burdinurtuzko manufakturak (% 9,21) eta automobilak (% 3,77). **Inportazioei** dagokienez, hauek dira gehien inportatzen diren 5 produktuak: erregai mineralak (% 51,69), olio-haziak eta -fruituak (% 14,58), erreaktore nuklearrak (% 7,39), nikela eta bere manufakturak (% 4,14) eta, azkenik, makina eta aparatu elektrikoak (% 2,56).

Taula hauetan zehatz-mehatz azaltzen da zeintzuk diren Euskadiren eta Estatu Batuen artean **inportatzen eta esportatzen diren produktu garrantzitsuenak**.

12. taula: Euskaditik Estatu Batuetara gehien esportatutako kapituluak 2019an (*behin-behineko datuak).

Esportazioak	2019 milaka USD	%
27 Erregai mineralak	500.203	27,96
84 Ekipo-ondasun mekanikoak	379.275	21,20
85 Makina eta aparatu elektrikoak	168.118	9,40
73 Burdinurtuzko manufakturak	164.737	9,21
87 Automobilak	67.416	3,77
38 Askotariko produktu kimikoak	54.187	3,03
83 Metalezko manufakturak	48.252	2,70
72 Galdaketa, burdina eta altzairua	42.616	2,38
76 Aluminioa eta bere manufakturak	41.976	2,35
93 Armak eta munizioak	37.540	2,10
86 Burdinbideetako ibilgailuak	37.464	2,09
22 Edariak	28.128	1,57
82 Tresnak eta lanabesak	27.319	1,53

Iturria: EUSTAT. Agentziak egina.

13. taula: Euskadik Estatu Batuetatik gehien inportatutako kapituluak 2019an (*behin-behineko datuak).


Produktuak	Milaka euro	%
Guztira	941.168	
27 Erregai mineralak	486.518	51,69
12 Olio-haziak eta -fruituak	137.225	14,58
84 Ekipo-ondasun mekanikoak	69.554	7,39
75 Nikela eta bere manufakturak	38.993	4,14
85 Makina eta aparatu elektrikoak	24.054	2,56
90 Optikako instrumentuak	21.590	2,29
26 Mineralak, zepak eta errautsak	19.895	2,11
76 Aluminioa eta bere manufakturak	18.797	2,00
03 Arrainak	16.900	1,80
48 Papera eta kartoia	15.436	1,64
30 Produktu farmazeutikoak	7.496	0,80
39 Materia plastikoak	7.361	0,78
73 Burdinurtuzko manufakturak	6.040	0,64
08 Fruitu jangarriak	5.634	0,60

Iturria: EUSTAT. Agentziak egina.



Grafiko honetan ikusten da Euskadiko esportazioek Espainiatik Estatu Batuetara eginiko esportazio guztien gainean duten pisua. Pisu hori dezente handiagoa da EAEn esportazio guztiek Espainiako esportazioekiko duten pisua baino.

8. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiako esportazioetan (%)



Iturria: DataComex. Agentziak egina.

Hona hemen 2015 eta 2019 urteen arteko esportazioak sektoreka sailkatuta. **Euskadik Estatu Batuetara eginiko esportazioek** Espainiak Estatu Batuetara eginiko esportazio guztien % 14,93 hartzen dute. Esan liteke euskal esportazioek ekarpen handia egiten dutela Espainiatik AEBetara eginiko esportazioen bolumenean, kontuan izan behar baita mundu osora egiten diren esportazio guztien bolumenean duten pisua % 8,22koa baino ez dela. Aipatzekoa da produktu energetikoen sarpen-maila (% 41,33), alde handia ateratzen dietelarik hurrengoei, alegia, ekipo-ondasunei (% 18,28). Azken hori baino ia % 10 beherago kokatzen dira erdi-manufakturen sektorea, automobilak eta kontsumo-ondasun iraunkorrak. Joera berbera ikusten da **mundu osora eginiko esportazioen guztizkoan**, baina portzentajea dezente baxuagoa da sektore guztietan: % 4,76 produktu energetikoetan, % 4,78 ekipo-ondasunetan eta % 3 inguru, bai erdi-manufakturan eta bai automobilaren sektorean. Alde handiagoarekin, horien atzetik dator kontsumo-ondasun iraunkorren sektorea, guztizkoaren % 1arekin. Ondorioz, esan liteke sektore guztiek nahiko sarpen-maila handia dutela Estatu Batuetan.

14. taula: Euskadiren eta Espainiaren pisua AEBetanzko esportazioetan sektoreka (%)

	GUZTI RA 15- 19	2015	2016	2017	2018	2019
Euskadiren eta Espainiaren pisua AEBetanzko esportazioetan sektoreka (%)	14,93	13,51	14,59	16,57	13,05	14,55
1 ELIKAGAIAK, EDARIAK ETA TABAKOA	2,35	3,09	2,76	2,19	2,15	1,71
2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	41,33	45,84	45,01	36,51	45,35	33,17
3 LEHENGAIK	3,19	0,84	1,16	0,71	7,89	3,88
4 ERDI-MANUFATURAK	9,84	8,64	7,85	10,28	11,89	10,11
5 EKIPO-ONDASUNAK	18,28	17,45	16,15	17,96	20,51	19,06
6 AUTOMOBIL SEKTOREA	10,09	8,09	9,47	15,69	12,19	5,45
7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	9,97	11,70	9,62	9,88	9,77	9,14
8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	5,73	5,36	5,21	5,68	5,54	6,75
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	1,29	1,09	1,25	2,12	1,19	1,03



Iturria: DataComex. Agentziak egina.

15. taula: Euskadiren eta Espainiaren pisua mundu mailako esportazioetan sektoreka (%)

	GUZTI RA 15- 19	2015	2016	2017	2018	2019
Euskadiren eta Espainiaren pisua mundu osorako esportazioetan sektoreka (%)	8,22	8,25	7,78	8,02	8,33	8,73
1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	0,71	2,27	2,09	2,04	2,13	2,37
2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	4,76	18,69	12,86	11,61	12,21	10,61
3 LEHENGAIK	1,51	5,11	5,10	4,32	4,48	4,25
4 ERDI-MANUFATURAK	2,95	9,76	9,30	9,23	9,90	10,18
5 EKIPO-ONDASUNAK	4,78	16,03	14,60	15,59	16,16	18,35
6 AUTOMOBIL SEKTOREA	2,77	8,10	9,72	10,94	10,28	10,57
7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	1,17	5,87	5,12	5,17	5,30	6,61
8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	0,59	1,85	1,79	1,85	1,80	2,05
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	0,11	0,39	0,40	0,19	0,42	0,28

Iturria: DataComex. Agentziak egina.

Nahiz eta Europako gainerako herrialde nagusietatik eginiko esportazioak Espainiakoak baino handiagoak izan –aurreko atalean ikus bezala-, Espainiako eta Euskadiko esportazioen rankinga aztertuz gero, ikusten da ekipo-ondasunen inportazioen bolumen handia orokorra dela hiru kasuetan. Aipatzekoa da produktu energetikoei ekarpen handia egiten dietela Estatu Batuek Espainiatik eta Euskaditik egiten dituzten inportazioei, kontuan izan behar baita ondasun mota horien Europako inportazioak azken tokian daudela sektorekako sailkapenean.

Espainia eta Euskaditik Estatu Batuetara eginiko esportazioen hurrengo rankingean ikusten da aipatu berri dugun hori.

16. taula: Espainia eta Euskaditik Estatu Batuetara eginiko esportazioen rankinga produktuka (2015-2019 guztira)

Espainia-AEBak	Milaka €	Euskadi-AEBak	Milaka €
Sektorea		Sektorea	
GUZTIRA	60.696.699,84	GUZTIRA	8.832.120,019
4 ERDI-MANUFATURAK	15.520.699,5	2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	3.297.781,419
5 EKIPO-ONDASUNAK	15.357.910,75	5 EKIPO-ONDASUNAK	2.806.662,52
1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	8.535.486,71	4 ERDI-MANUFATURAK	1.527.591,20
2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	7.978.361,63	6 AUTOMOBIL SEKTOREA	594.994,16
6 AUTOMOBIL SEKTOREA	5.899.262,18	8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	296.429,88
8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	5.175.989,54	1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	200.382,82
3 LEHENGAIK	884.884,82	7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	72.012,93
7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	722.572,36	3 LEHENGAIK	28.232,51
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	621.532,35	9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	8.032,58

Iturria: DataComex. Agentziak egina.



CIVEX indizearen arabera, 372 euskal enpresak (Arabako 75, Bizkaiko 162 eta Gipuzkoako 135) esportatzen dute Estatu Batuetara.

6.2. Euskadiren posizionamendua

Hona hemen 2017an (eskuragarri dauden azken datuak urte horretakoak dira) Estatu Batuek egindako inportazioen gaineko sektorekako euskal kuota eta azken bost urteetan izan duen bilakaera.

17. taula: AEBak: Kuota rankinga sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaeraren rankina hazkunderaren arabera, 2012-2017

SEKTOREAK		2017	SEKTOREAK		Bilak. 2017 - 2002	Bilak. 2017 - 2012
73A	Hodiak eta osagarriak	1,53	85A	Motorrak eta sorgailu elektrikoak	0,85	0,69
72B	Altzairu arruntezko barrak eta profilak	1,38	86	Burdinbideetako ibilgailuak	-5,31	0,55
93	Armak eta munizioak	1,19	93	Armak eta munizioak	-1,61	0,44
86	Burdinbideetako ibilgailuak	1,00	72B	Altzairu arruntezko barrak eta profilak	0,17	0,41
85A	Motorrak eta sorgailu elektrikoak	0,85	84C	Metala lantzeko makina-erreminta	0,24	0,34
84C	Metala lantzeko makina-erreminta	0,81	73A	Hodiak eta osagarriak	-0,06	0,21
72D	Altzairu herdoilezin eta aleatzuko barrak eta profilak	0,40	25-27	Produktu mineralak	0,26	0,18
83	Metalezko manufakturak	0,38	82	Tresnak eta lanabesak	0,08	0,15
25-27	Produktu mineralak	0,34	76	Aluminioa eta manufakturak	0,14	0,11
73C	Kableak, alanbrea, torlojuak, malgukiak	0,30	84A	Galdarak eta turbinak	0,23	0,11
84A	Galdarak eta turbinak	0,30	87A	Automobilak	0,09	0,09
82	Tresnak eta lanabesak	0,25	84E	Ostalaritzako ekipamendua eta etxetresnak	-0,03	0,05
73D	Burdin edo altzairuzko beste manufaktura batzuk	0,16	68-70	Harria, zementuak eta beira	0,01	0,05
76	Aluminioa eta manufakturak	0,15	87D	Automobilen kapituluko beste batzuk	0,00	0,03
73B	Depositatuak, ontziak	0,14	40	Kautxua eta manufakturak	-0,05	0,02
22	Edariak	0,13	47-49	Pasta, papera eta bere manufakturak	0,05	0,02
84E	Ostalaritzako ekipamendua eta etxetresnak	0,10	72C	Altzairu herdoilezin eta aleatzuko produktu zapalak	-0,01	0,02
84D	Garabiak eta jasogailuak	0,10	1-5	Animalia erreinuko produktuak	0,00	0,01
68-70	Harria, zementuak eta beira	0,09	41-43, 50-67	Oihala eta bere manufakturak	0,01	0,01
87A	Automobilak	0,09	39	Material plastikoak	0,01	0,01
40	Kautxua eta manufakturak	0,08	16-24 (-22)	Elikagaiak	0,01	0,01
47-49	Pasta, papera eta bere manufakturak	0,08	90-92	XVIII Optika eta zehaztasunezko aparatuak	0,00	0,01
87C	Zatiak eta osagarriak	0,07	71	Bitxiak eta bisuteria	0,00	0,00
84F	Beste makina mekaniko batzuk	0,05	94-96	Altzariak, jostailuak, beste batzuk	0,00	0,00
87D	Automobilen kapituluko beste batzuk	0,05	85E	Beste ekipo-ondasun elektriko batzuk	0,00	0,00
88	Aireko edo espazioko nabigazioa	0,05	87C	Zatiak eta osagarriak	-0,05	0,00
72C	Altzairu herdoilezin eta aleatzuko produktu zapalak	0,04	44-46	Zura eta bere manufakturak	0,02	0,00
85B	Transformadoreak	0,04	84F	Beste makina mekaniko batzuk	-0,02	0,00
84B	Motorrak	0,03	72E	Burdinurtuzko, burdinazko eta altzairuzko beste batzuk	0,01	0,00
75, 78-81	Beste metal eta manufaktura batzuk	0,03	87B	Merkatu-gaien garraiorako ibilgailuak	0,00	0,00
44-46	Zura eta bere manufakturak	0,02	6-14	Landare erreinuko produktuak	0,00	0,00
39	Material plastikoak	0,02	85D	Argiztapena	0,00	0,00
85E	Beste ekipo-ondasun elektriko batzuk	0,02	15	Gantzak eta olioak	0,00	0,00
16-24 (-22)	Elikagaiak	0,02	85B	Transformadoreak	0,00	0,00
94-96	Altzariak, jostailuak, beste batzuk	0,02	28-38	Produktu kimikoak	-0,01	0,00
1-5	Animalia erreinuko produktuak	0,01	75, 78-81	Beste metal eta manufaktura batzuk	0,02	-0,01
41-43, 50-67	Oihala eta bere manufakturak	0,01	22	Edariak	0,01	-0,01
90-92	XVIII Optika eta zehaztasunezko aparatuak	0,01	74	Kobrea eta bere manufakturak	-0,02	-0,02
85C	Bateriak, metagailuak, elektroimanak	0,01	72A	Altzairu arruntezko produktu zapalak	-0,01	-0,02
28-38	Produktu kimikoak	0,01	83	Metalezko manufakturak	0,02	-0,02
74	Kobrea eta bere manufakturak	0,01	99	Sailkatu gabeak	0,00	-0,02
71	Bitxiak eta bisuteria	0,01	72D	Altzairu herdoilezin eta aleatzuko barrak eta profilak	-0,62	-0,03
15	Gantzak eta olioak	0,01	85C	Bateriak, metagailuak, elektroimanak	-0,07	-0,03
72E	Burdinurtuzko, burdinazko eta altzairuzko beste batzuk	0,01	84B	Motorrak	0,01	-0,06
97	XXI Artelanak	0,01	89	Itsaso edo ibaietako nabigazioa	-0,03	-0,07
72A	Altzairu arruntezko produktu zapalak	0,00	73D	Burdin edo altzairuzko beste manufaktura batzuk	-0,08	-0,11
99	Sailkatu gabeak	0,00	84D	Garabiak eta jasogailuak	0,04	-0,11
89	Itsaso edo ibaietako nabigazioa	0,00	73C	Kableak, alanbrea, torlojuak, malgukiak	0,05	-0,13
85D	Argiztapena	0,00	97	XXI Artelanak	0,00	-0,19




6-14	Landare erreinuko produktuak	0,00	88	Aireko edo espazioko nabigazioa	0,02	-0,23
87B	Merkatu-gaien garraiorako ibilgailuak	0,00	73B	Deposituak, ontziak	-0,02	-0,28

Iturria: Agentziak egina Eustat-en eta UN Comtrade-ren datuekin

Jarraian grafiko bat dago non laburbiltzen den Euskadik AEBetan duen posizionamendua sektoreka, eta hau da bere interpretazioa:

- **Indartsuak:** sektore hauetan asko handitu dira Estatu Batuetako inportazioak azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere handitu egin da.
- **Helduak:** Inportazioak ez dira hazi, baina Euskadiren kuota bai.
- **Potentzialak:** Sektore hauetan asko handitu dira inportazioak azken 5 urteetan, baina Euskadiko kuota ez da handitu.
- **Interes gutxikoak:** Sektore hauetan inportazioak ez dira handitu azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere ez.

Crecimiento Importaciones 2012-2017





16-24 (22)	Productos alimenticios	73C	Cables, alambre, tornillería, muelles	85A	Motores y generadores eléctricos
22	Bebidas	73D	Otras manufacturas de hierro o de acero	85B	Transformadores
25-27	Productos minerales	74	Cobre y sus manufacturas	85E	Otros bienes de equipo eléctricos
28-38	Productos químicos	76	Aluminio y manufacturas	86	Vehículos de vías férreas
39	Materias plásticas	82	Herramientas y útiles	87A	Vehículos automóviles
40	Caucho y manufacturas	83	Manufacturas metálicas	87B	Vehículos para transporte mercancías
47-49	Pasta, papel y sus manufacturas	84B	Motores	87C	Partes y accesorios
72A	Productos planos acero común	84C	Máquinas herramienta para trabajar metal	88	Navegación aérea o espacial
72B	Barras y perfiles acero común	84D	Guías y aparatos elevación	89	Navegación marítima o fluvial
72D	Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	84E	Equipamiento hostelería y aparatos domésticos		
73A	Tubos y accesorios	84F	Otra maquinaria mecánica		

Soilik bi urte hartzen baditugu joerak interpretatzeko (kasu honetan, 2012 eta 2017), hauxe ikusten da:

Erreparatzen badiegu sektore indartsuei edo potentziala dutenei, Estatu Batuetako inportazioak merkatu-gaien garraiorako automozio sektorean hazi dira gehien, ia % 60ra iristeraino. Indartsuak izateagatik edo potentziala edukitzeagatik nabarmentzen diren beste sektore batzuk dira motorrena, altzairu arruntarena, aluminioa eta bere manufacturen, eta jasogailuena.

6.3. Aldebiko inbertsioak

BasqueTrade agentziaren arabera, 85 euskal enpresa daude Estatu Batuetan kokatuta; horietatik 50 ezarpen produktiboak dira, eta beste 35 komertzialak. Gainera, enpresa batzuk estatu bat baino gehiagotan kokatu direnez, guztira 200 euskal establezimendu inguru daude AEBetan.

Sektoreka, aipatzekoak dira hauek: energia berriztagarriak, ingurumena, automozioa, makina-erreminta, burdinbideak, ingeniari-tza, eraikuntza eta elektronika.

Bureau Van Dick bulegoaren arabera, AEBetako kapitala duten 100 enpresa daude Euskadin.



7. SEKTORE NAGUSIAK

7.1. Ekarpena BPGari

Hona hemen Estatu Batuetako BPGaren banaketa sektoreka⁶:

18. taula: sektoreen ekarpena Estatu Batuetako BPGari

		2019		
Sektore ekonomiko eta industrialak		Biloi USD	%	Biloi €
1	Ondasun higiezinak eta alokairua eta errentamendua	2.884,2	13,39	2.658,2
2	Estatuko eta tokiko gobernua	1.828,7	8,49	1.685,4
3	Zerbitzu profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	1.666,9	7,74	1.536,3
4	Osasun eta gizarte laguntza	1.628,0	7,56	1.500,5
5	Finantzak eta aseguruak	1.627,4	7,55	1.499,9
6	Ondasun iraunkorren fabrikazioa	1.344,8	6,24	1.239,4
7	Handizkako merkataritza	1.287,2	5,98	1.186,4
8	Txikizkako merkataritza	1.184,6	5,50	1.091,8
9	Informazioa	1.128,8	5,24	1.040,4
10	Ondasun iragankorren fabrikazioa	1.020,7	4,74	940,7
11	Eraikuntza	890,3	4,13	820,6
12	Gobernu federala	816,6	3,79	752,6
13	Garraioa eta biltegiatzea	683,8	3,17	630,2
14	Zerbitzu administratiboak eta hondakinen kudeaketa zerbitzuak	681,0	3,16	627,6
15	Ostatu eta elikadura zerbitzuak	667,4	3,10	615,1
16	Beste zerbitzu batzuk, gobernua izan ezik	458,9	2,13	422,9
17	Enpresa eta ekimenen kudeaketa	422,2	1,96	389,1
18	Tresneria	336,3	1,56	310,0
19	Meatzaritza	310,8	1,44	286,5
20	Hezkuntza zerbitzuak	265,1	1,23	244,3
21	Artea, entretenimendua eta aisialdia	235,5	1,09	217,1
22	Nekazaritza, basogintza, arrantza eta ehiza	173,4	0,80	159,8
	GUZTIRA	21.542,5	100,00	19.854,8

Iturria: Bureau of Economic Analysis. Agentziak egina.

Komeni da aipatzea industriak eta energiak guztizkoaren % 12,54ko portzentajea ordezkatzeko dutela (tresneria: % 1,56; ondasun iragankorren fabrikazioa: % 4,74; ondasun iraunkorren fabrikazioa: % 6,24), eta protzentaje hori Euskadiko tasa baino dezente txikiagoa da (% 24,5).

Manufaktura-industriari dagokionez, hauek izan dira azpi-sektore garrantzitsuenak 2018an.

⁶ Kanbio-tasa: 1€ = 1,0975 USD // 1 USD = 0,911€
International Monetary Fund, May 26, 2020.
https://www.imf.org/external/np/fin/data/rms_rep.aspx


19. taula: Manufaktura industriako azpi-sektore garrantzitsuenak 2018an

SEKTOREA	Biloi USD	Gutizkoaren %	Biloi €	Manufaktura %
Janaria, edaria eta tabako produktuak	973,6	2,66	897,33	15,66
Produktu kimikoak	838,2	2,29	772,53	13,48
Motordun ibilgailuak, karrozeriak, atoiak eta piezak	754,3	2,06	695,21	12,13
Petrolio eta ikatzezeko produktuak	652	1,78	600,92	10,49
Makineria	399,5	1,09	368,20	6,43
Metalezko produktu fabrikatuak	395,6	1,08	364,61	6,36
Produktu informatiko eta elektronikoak	377,4	1,03	347,83	6,07
Garraiorako beste ekipo batzuk	344,5	0,94	317,51	5,54
Metal primarioak	256,4	0,70	236,31	4,12
Plastikoak eta kautxuzko produktuak	235,1	0,64	216,68	3,78
Paperezko produktuak	189,8	0,52	174,93	3,05
Askotariko fabrikazioak	177,7	0,49	163,78	2,86
Ekipo elektrikoak, etxetresna elektrikoak eta osagaiak	136,1	0,37	125,44	2,19
Produktu mineral ez metalikoak	133,1	0,36	122,67	2,14
Zurezko produktuak	116,1	0,32	107,00	1,87
Inprimaketa jarduerak eta horietarako laguntza	83,1	0,23	76,59	1,34
Altzariak eta horiekin lotutako produktuak	77,6	0,21	71,52	1,25
Oihal lantegiak eta oihalezko produktuen lantegiak	56,9	0,16	52,44	0,92
Arropak, larrua eta antzeko produktuak	20	0,05	18,43	0,32

Iturria: Bureau of Economic Analysis. Agentziak egina.

MERKATUKO BOLUMENAK
18. taula: Merkatuko bolumenak milioi USDtan

Kategoria	2018
Petrolio gordinaren eta gas naturalaren erazketa	304.439
Ikatz eta lignito meatzaritza	53.499
Erregai nuklearraren prozesamendua	9.564
Petrolioazko produktu birfinduak	561.504
Birziklapena	17.079
Ur bilketa eta banaketa	12.482
Gas fabrikazioa eta banaketa	82.715
Argindarra	362.548
Estoldak eta saneamendua	87.258
Erabilpen orokorreko makineria	284.094
Erabilpen berezietarako makineria	182.828
Etxeko erabilpenak	30.094
Tresna optikoak eta argazkigintzako ekipoak	11.625
Telebista eta irrati argailuak, soinu eta bideo grabagailuak	13.645
Metagaluak, zelula primarioak eta bateria primarioak	19.150
Lanpara elektrikoak eta argiztapen ekipoak	18.222
Motor elektrikoak, sorgailuak eta transformadoreak	26.392
Motor eta ibilgailuentzako ekipo elektrikoak	38.242



Kategoria	2018
Argindarraren banaketa eta kontrolerako gailuak	40.058
Konputagailuak eta bulegorako makineria	64.529
Osagai elektronikoak, balbulak eta hodiak	101.364
Sakelako telefonoak, irrati transmisoreak eta telebista kamerak	33.508
Neurtzeko, nabigatzeko eta probatzeko gailuak	110.641
Prozesu industrialak kontrolatzeko ekipok	15.428
Hegazkinak eta espazio-ontziak	186.481
Motordun ibilgailuak eta piezak	653.542
Motorrak, bizikletak eta garraiorako beste ekipo batzuk	12.274
Tren eta tranbientzako lokomotorrak eta gurpildun materiala	13.149
Ontziak eta itsasontziak	50.222
Negoioetarako zerbitzuak	3.042.974

Iturria: Euromonitor International. Agentziak egina.

7.2. Negozio-aukerak

Estatu Batuak bezalako herrialde batek kontaezin ahala negozio-aukera eskaintzen ditu sektore guztietako enpresentzat. Munduko ekonomia handiena da, munduko BPGaren laurdena ordezkatzen du, eta negozioetarako giro oso dinamikoa du, bere *pro-business* legeriari eta lan-esku kualifikatu, berritzaile eta malguari esker. Horregatik, atzerriko inbertsio zuzenaren igorle eta hartzaile nagusia da.

Sektore hauek eskaintzen dituzte euskal enpresentzako negozio-aukera garrantzitsuenak:

- Automozioa: munduko merkatu handienetako bat da, bigarren ekoizle handiena eta bigarren salmenta-merkatu handiena.
- Energia: liderra da ekoizpenean, hornikuntzan eta kontsumoan. Oso erakargarria energia berriztagarrien arloko enpresentzat. Munduko petrolio-ekoizle nagusia da eta gas naturalaren esportatzaile garbia.
- Bioteknologia: munduko merkatu handiena da (% 30) eta liderra I+G-n.
- Finantza-merkatua: munduko merkatu handiena da eta likidezia gehien duena.
- Softwarea eta teknologia-zerbitzuak: munduko industria aurreratuenak da eta merkatu globalaren % 40 ordezkatzen du.
- Azpiegiturak: premia-premiazkoa da mota guztietako azpiegiturak berri eta hobetzea. Horrek esan nahi du hazi egingo dela ingeniari-zerbitzuen eskaera, bai eta mota guztietako eraikuntza materialena eta siderurgiarena, lan guztiak ezingo direlako ase barneko ekoizpenarekin.

Pandemiaren ostean, gorakada espero da sektore hauetan:

- Bioteknologiari lotutako sektoreak: farmazeutika sektorea, *medical devices*, eHealth, osasuna, pertsona nagusientzako arreta, e.a.
- IKTak: batik bat, urrunetik lan egin ahal izateko tresnak
- eCommerce
- Berrikuntzak, pertsona-talde handiekin egiten diren jardueri berriro ekin ahal izateko: sarreretako kontrola, e.a.


Basque Trade agentziaren zaintza-sistemak aldi behin argitaratzen du Estatu Batuetako aukera espezifikoetarako buruzko informazioa:

https://basquetrade.spri.eus/es/inteligencia-competitiva/?fwp_tipo_contenido=oportunidades-comerciales



International Trade Center bulegoaren arabera, hauek dira Estatu Batuetatik esportatzeko potentzial handiena duten produktuak:

1. ilustrazioa: Estatu Batuetatik esportatzeko potentzial handiena duten produktuak



Iturria: International Trade Center.



8. NAZIOARTEKO HARREMANAK

8.1. Nazioarteko kidetasunak

Estatu Batuek presentzia dute nazioarteko antolakunde multilateral ia guztietan. Beste herrialde batzuekiko harreman komertzialetan, Estatu Batuek mundu mailako merkataritzaren liberalizazioa defendatu dute orain arte, eta helburu hori bateragarri egin dute herrialde barruko lehentasun protekzionistekin. Halere, joera protekzionista hori areagotu egin da Trump-en administrazioa iritsi denetik.

Estatu Batuak Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) kide fundatzaileetako bat da, eta akordio komertzial ugari (multilateralak, eskualde mailakoak nahiz aldebikoak) sinatu ditu herrialde askorekin. AEBen nazioarteko harremani buruzko informazio eguneratua eskuragarri dago US Trade Representative-ren eta Estatu Departamenduaren web orrietan:

- Office of the United States Trade Representative (USTR): <https://ustr.gov/trade-agreements> (EN)
- Bureau of International Organization Affairs - IO (NBErekiko eta nazioarteko gainerako organismoekiko harremanez arduratzen den bulegoa): www.state.gov/p/io/
- Bureau of Budget and Planning (departamenduko aurrekontu-bulegoa da, eta nazioarteko organismoetara bideratutako funtsak ere banatzen ditu): www.state.gov/s/d/rm/rls/
- African Growth and Opportunity Act: <http://agoa.info/>

Lankidetzak ekonomikoari eta garapenerako laguntzari dagokienez, hauek dira Estatu Batuetako erakunde garrantzitsuenak: **USAID**: Nazioarteko Garapenerako Estatu Batuetako Agentzia, AEBek mundu osoan banatzen duten laguntza ekonomikoa eta humanitarioa planifikatzen eta administratzen duena.

Millennium Challenge Corporation: Estatu Batuetako administrazio federalaren menpeko erakundea, 2004an sortua (George W. Bush presidente zenean) munduko herrialde pobre gehienei laguntzeko. 2020an, pandemian zehar, Trump presidenteak gogor kritikatu du Osasunaren Munduko Erakundearen kudeaketa, esanez AEBak erakunde horretatik irtengo direla eta ez dutela funts gehiagorik jarriko.

8.2. Merkataritza-akordioak

Momentuz, Estatu Batuek merkataritza libreko 14 itun dituzte sinatuta 20 herrialderekin:

- Australia
- Bahrain
- Kanada (NAFTA-Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Itunaren barruan)
- Txile
- Kolonbia
- Costa Rica (CAFTA-DR – Dominikar Errepublikaren eta Erdialdeko Amerikaren arteko Merkataritza Libreko Itunaren barruan)
- Dominikar Errepublika (CAFTA-DR itunaren barruan)
- Salvador (CAFTA-DR itunaren barruan)
- Guatemala (CAFTA-DR itunaren barruan)
- Honduras (CAFTA-DR itunaren barruan)
- Israel
- Jordania
- Korea
- Mexiko (NAFTA itunaren barruan)



- Maroko
- Nikaragua (CAFTA-DR itunaren barruan)
- Oman
- Panama
- Peru
- Singapur

Itun horiei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jo esteka honetara:

<https://www.trade.gov/free-trade-agreements>.

Bestalde, AEBek aldebiko akordioak dituzte herrialde hauekin:

- Albania (1998)
- Argentina (1994)
- Armenia (1996)
- Azerbaijan (2001)
- Bahrain (2001)
- Bangladesh (1989)
- Bolivia (2001)
- Bulgaria (1994)
- Kamerun (1989)
- Kongo, Errepublika Demokratikoa (Kinshasha) (1989)
- Kongo, Errepublika (Brazzaville) (1994)
- Kroazia (2001)
- Txekiar Errepublika (1992)*
- Ekuador (1997)
- Egipto (1992)
- Estonia (1997)
- Georgia (1997)
- Granada (1989)
- Honduras (2001)
- Jamaika (1997)
- Jordania (2003)
- Kazakhstan (1994)
- Kyrgyzstan (1994)
- Letonia (1996)
- Lituania (2001)
- Moldavia (1994)
- Mongolia (1997)
- Maroko (1991)
- Mozambique (2005)
- Panama (1991)
- Amendment to Panama BIT (2000)
- Polonia (1994)
- Errumania (1994)
- Rwanda (2012)
- Senegal (1990)
- Eslovakia (1992)*
- Sri Lanka (1993)
- Trinidad & Tobago (1996)
- Tunisia (1993)
- Turkia (1990)
- Ukraina (1996)



- Uruguai (2006)

Horiez gain, baditu itunak sinatuta beste herrialde hauekin, baina oraindik ez dira indarrean sartu: Bielorrusia, Salvador, Haiti, Nikaragua, Errusia eta Uzbekistan. AEBetako gobernuak aldebiko inbertsio-itunak negoziatzen ari da.



9. ASKOTARIKO ARRISKUAK

COFACEren balorazioa ⁷

HERRIALDEA	HERRIALDEAREN ARRISKUA	NEGOZIOETARAKO GIROA	Oharrak
Estatu Batuak	A2	A1	<p>-INDAR-GUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lan-merkatu malgua. • Erabateko enplegua da Erreserba Federalaren helburuetako bat. • Dolarra nagusi da ekonomia globalean. • Zor publikoaren % 70 biztanleen esku dago. • Oso erakargarria: liderra da ikerketan eta berrikuntzan, eta merkatu handia du. • Fiskalitate abantailatsua enpresentzat. • Gero eta autonomoagoa da energia arloan. <p>-AHULUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartze baxua lan-merkatuan • Etxebizitzei dagokienez, ez dago malgutasun geografikorik. • Familien zorra handia da (diru-sarrera gordin erabilgarriaren 129). • Paisaia politiko polarizatua. • Ugalkortasun-tasa murriztu egin da. • Azpiegiturak ez daude eguneratuta. • Desberdintasunak gero eta handiagoak dira.

Ohar garrantzitsuak⁸:

Pandemiak eta tirabira komertzialek hazkundera oztopatu dute

Donald Trump presidentearen zerga erreformek (% 35etik % 21era jaitsi ditu zerga korporatiboak) enpresen inbertsioa bultzatu zuten 2018an eta 2019aren hasieran. Baina 2019aren erdi aldera, merkataritza arloko tirabirek (muga-zergak, akordio komertzialen birnegoziazioa, Boeing Airbus enpresarena bezalako gatazka handiak) desazelerazio bat eragin zuten, eta erabaki politikoen aurreikusiezintasunak larriagotu egin zuen egoera.

⁷ HERRIALDEAREN ARRISKUAREN ETA NEGOZIOETARAKO GIROAREN ANALISIA

Arrisku orokorra kalkulatzeko, enpresa-faktore espezifikoak eta enpresaren herrialdeari dagozkion faktoreak konbinatzen dira. Analisi horrek zazpi mailako sailkapen bat erabiltzen du, arrisku txikienetik handienara doana: A1, A2, A3, A4, B, C eta D.

⁸ Iturria: COFACEk (2020ko otsaileko datuak) eta Agentziak eguneratua (2020ko ekaineko datuak)



Bi dira tirabira komertzial horiekiko esposizio handiena duten segmentuak: manufaktura-industria, zeinetan esportazio-eskaerek sekulako jaitsiera izan duten eta intsumoen kostua igo egin den; eta nekazaritzako negozioa, Txinaren errepresalia komertzialen jomuga nagusia. Energia sektoreko egoera ekonomikoa ere zaila da, oso zorpetuta baitago inbertsiorako eskakizunengatik, eta errentagarritasuna ere baxua da, petrolioaren prezioak jaitsi egin direlako.

Krisiaren ostean tentsioa areagotu egin da, MMerekiko prozesuak atzeratu direlako, esportaziorako kontrolak ugaritu direlako, eta hornikuntza kateak hautsi direlako. Gainera, ingurune komertzialak makal jarraituko du, zeren krisiaren aurretik bere bazkideek hazkunde xumea bazuten, pandemiaren ostean mundu mailako atzeraldian sartu baikara.

Kontu publikoen eta kanpoko kontuen defizitak

Defizit publikoak oso handia izaten jarraituko du 2020an eta 2021ean, are gehiago Kongresuak pandemiaren ondorio ekonomikoak kontrolatzeko onartu dituen finantza-laguntza handien ostean. Zor publikoak, munduko handienetakoak, gorantz jarraituko du hemendik aurrera ere.

Presidentetzarako hauteskundeek eragindako ziurgabetasuna paisaia polarizatu batean.

2020ko azaroan egingo diren presidentetzarako hauteskundeen aurreko aldian, panorama politikoa inoiz baino polarizatuago dago. Inkestek erakusten dituzten emaitzak oso estuak dirudite. Pandemiaren kudeaketa eta ekonomiaren osasuna erabakigarriak izango dira Etxe Zurirako maizter berria aukeratzean.

Nazioartean, Estatu Batuen merkataritzak eta kanpo-politikak ezin aurreikusizkoak izaten jarraituko dute. Txinarekiko tirabira komertziala areagotu egin da pandemiaren ondoren, eta muga-zerga gehienak bere horretan mantendu dira (19 batez beste 2020ko urtarrilean – 3 2018aren hasieran). Halaber, baliteke Estatu Batuek fronte berri bat irekitzea gerra komertzial horretan, zergak ezarri baitizkie Europako auto inportazioei, horri buruzko erabakia bi bider atzeratu ondoren.



10. ONDORIOAK

Estatu Batuetakoa merkatu garrantzitsua da Euskadirentzat. Munduko ekonomia handiena da, munduko BPGaren laurdena ordezkatzeko giro oso dinamikoa du, bere pro-business legeriari eta lan-esku kualifikatu, berritzaile eta malguari esker. 2019an, Euskadiren laugarren bazkide komertziala izan zen (2.730.392 milioi €-ko bolumena), baina azken 6 urteetan hirugarren postuan egon da eta lehenengoan Europar Batasunetik kanpoko herrialdeen artean.

Duela pare bat hilabete arte, ekonomia estatubatuarra herrialdearen historiako hedapen-ziklo luzeenean zegoen murgilduta: kontsumo nazionalaren eskaera handia zen, langabezia-tasa % 3,5an zegoen kokatua (azken 50 urteetan erregistratutako baxuena), eta perspektiba ekonomikoak ezin hobeak ziren. Gainera, hazkunde-perspektiba horiek are handiagoak ziren Kanadarekin eta Mexikorekin hitzarmen komertziala sinatu eta Txinarekin izandako merkataritza-negoizazioen ondoren.

COVID-19aren krisia iristearekin batera, Estatu Batuak atzeraldian sartu ziren. Espero da BPGak % 5,9ko beherakada izango duela 2020an, eta % 4,8 haziko dela 2021ean. Halere, eta krisia gorabehera, ezin da ukatu Estatu Batuek sekulako potentziala dutela, eta konta ezin ahala negozio-aukera eskaintzen dituztela sektore guztietan, batik bat Euskadirentzat lehentasunezkoak direnetan: automozioa, energia berriztagarriak, bioteknologia eta manufaktura aurreratua. Pandemiaren ondoren, aurreikuspenek diote eskaera hazi egingo dela bioteknologia, IKT eta eCommerce sektoreetan, eta baita ere egungo errealitatera egokitze aukera ematen duten berrikuntzen arloan.

Gaur egun 85 euskal enpresa daude Estatu Batuetan, 50 ezarpen produktiboak dira eta 35 ezarpen komertzialak. Sektoreka, aipatzekoak dira hauek: energia berriztagarriak, ingurumena, automozioa, makina-erreminta, burdinbideak, ingeniariak, eraikuntza eta elektronikak. Bureau Van Dijk bulegoaren arabera, AEBetako kapitala duten 100 enpresa daude Euskadin.

Estatu Batuetako presidentetzarako eta kongresurako hurrengo hauteskundeak 2020ko azaroaren 3an egingo dira. Donald Trump, egungo presidentea, hautagai izango da berriro eta Joe Biden hautagai demokrataren aurka lehiatuko da. Hauteskunde horien emaitzak markatuko du herrialdeak datozen lau urteetan jarraituko duen politika komertziala. Orain arte, Trump-en mezua izan da lehentasuna ematea Estatu Batuen interesei (*America First*), immigrazioa kontrolatzea eta nazioarteko akordio komertzial nahiz aliantza tradizional guztiak zalantzan jartzea, horretarako abiapuntutzat hartu duen elkarrekotasun eta enplegu nazionala babestera eta ekonomia desregularizatzea bideratutako politika komertziala. Azaroan jakingo dugu estatubatuarrek presidente bera izango duten berriro ala beste ildo politiko eta komertzial bat aukeratzen duten.



11. ERREFERENTZIAK

1. BEA (Bureau of Economic Analysis)
<https://www.bea.gov/>
2. CIA (Central Intelligence Agency)
<https://www.cia.gov/index.html>
3. CIVEX (Catálogo Industrial de Exportadores del País Vasco)
<https://www.euskadi.eus/x76aAppWar/index/home>
4. COFACE
<https://www.coface.com/>
5. Data Comex
<http://datacomex.comercio.es/index.htm>
6. Euromonitor International
<https://www.euromonitor.com/>
7. Euskal Estatistika Erakundea Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT)
<https://www.eustat.eus/indice.html>
8. Expansión. Datos Macro. IPC de USA. Abril 2020
<https://datosmacro.expansion.com/ipc-paises/usa>
9. IMF (International Monetary Fund)
<https://www.imf.org/external/index.htm>
10. Pew Research Center
<https://www.pewresearch.org/>
11. Santander Trade
<https://santandertrade.com/es>
12. Select USA
<https://www.selectusa.gov/welcome>
13. The White House
<https://www.whitehouse.gov/presidential-actions/proclamation-declaring-national-emergency-concerning-novel-coronavirus-disease-covid-19-outbreak/>
14. TWB (The World Bank)
<https://www.worldbank.org/>
15. UN Comtrade
<https://comtrade.un.org/>
16. United States Census Bureau
<https://www.census.gov/en.html>
17. BLS (U.S. Bureau of Labor Statistics)
<https://www.bls.gov/>

© Agencia Vasca de Internacionalización
Basque Trade and Investment S.A.



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BASQUE GOVERNMENT**